

O, DIY!



BEÑAT MUGURUZA
IRAKASLE ETA
IKERTZAILEA

D *Y: Do it yourself.* Egizu zerorrek, alegia. Edo hik heuk egintzank. Kontzeptu jainkoturik baldin bada gurean, eta bereziki musikaren munduan, horixe da. 90eko hamarkadan egin zuen eztanda inguru hauetan, eta badirudi jarraitzaile asko izaten segitzen duela oraindik ere.

Aldizkari honetan bertan elkarrizketatu zuten duela ez hainbeste musika talde amateur bat, eta lerroburua, klasiko bat: DIY filosofiaren esentzia bilatu nahi zutela; DIYaren sublimazio moduko baten arakatzeko etengabea. Bidea da borroka. Borroka ia bakarra.

Bururatzeko zaidan galdera maltzurra da, baina ziur beraiek bakarrik kudeatuko luketela, koherenteak badira: Zein zen B plana? Edo, bestela esanda, atzetik ufaka sumatuko ote zituzten nazioarteko bira amaigabea antolatzen irrikitan zeuden promotorak –musikarien lanaren bizkar aberasteko helburu makurrarekin–, taldearen zuzeneko saio jendetsu andana kudeatuko zuen *management* konpainia bat, salduko lituzketen dozenaka (ehunka?) disko horiek noranahi banatzeko enpresarik,

DIY: Do it yourself.
Egizu zerorrek,
alegia. Edo hik heuk
egintzank. Kontzeptu
jainkoturik baldin
bada gurean, eta
bereziki musikaren
munduan, horixe da

bitartekaririk, zigilurik, diskoetxerik?

Zeren, horietako bakar bat ere ez badago interesatuta, zein neurritan da apustua erradikala, eta ez halabeharrezkoa? Benetan du ikaragarritzko meritua, mende honetako 20ko hamarkadan oraindik musika talde batzuek saldu nahi diguten bezala? Multinazional bat atzetik baduzu, eta zuk uko egin, ez duzulako hark zure lana baldintzatzerik nahi, edo uste duzulako putre diruzale saldo bat baino ez direla... Orduan bai,

orduan ulertzen dut, eta miresten, norbere lanaren ahalik eta alderdi gehien kontrolpean izateko hautua.

Karikatura eginez, edo karikaturarekin segituz, baina errealitate gehiegi urrundu gabe: motibo berezi batengatik –edo fetitxismo hutsagatik– bada ondo, baina kulturaren, artearen, sorkuntza-prozesuaren mesederako al da 300 disko “manufakturatzea” taldeki-deen artean, eskolako plastika ikasgaiaren egongo bagina bezala? Nola aska dezake horrek egilea? Nor ateratzen da irabazten?

Besterik da kolektiboak eratzea, elkarri laguntzeko, babesteko, aterki baten pean aurrera egiten saiatzeko, eta halako adibide ugari ditugu gurean, zorionez: Balio dute, Muku, ZART, Erraia, Taupaka, eta beste bururatzeko zaizkit, eta gehiago izango dira. Baina bestela, DIYaren fantasiako diskurtso horiek, ez al dira ia bertan-goxo huts bat? Ukitu autokonplaziente bat ikusten diot, gutxizaletasunari egindako gorazarrea, gurean oso ohikoa, beste hark zioen bezala. Sentitzen dut, baina, garai hauetan, ez nau konbentzitzen. ●



**Amasa-Villabonan
euskaraz gara.**



AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA